

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

570

1622/13 EBAZPENA, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakunde sanitario publikoetako karrerako pertsonal funtzionario sanitarioa integratzeko dena.

Pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren 55/2003 Legeak hamaseigarren xedapen gehigarrian (testu berrian, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurrien apirilaren 24ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren arabera) honela arautzen du erakunde sanitario publikoetako pertsonal funtzionarioaren integrazioa osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren erregimenean:

«1.– Osasun-zerbitzuetako mediku orokor, praktikante eta emagin gisa lan egiten duten tokiko osasun-zerbitzuetako mediku, praktikante eta emagin titularrek eta erakunde sanitario publikoetan lan egiten duen gainerako pertsonal funtzionario sanitarioak 2013ko abenduaren 31ra arteko epea izango dute osasun-zerbitzuetan pertsonal estatutario finko moduan integratzeko, kontsolidatutako eskubideei kalterik egin gabe. Autonomia-erkidegoek horretarako behar diren prozedurak ezarriko dituzte.

2.– Pertsonal horrek oraingo egoeran jardunean jarraitu nahi izanez gero, pertsonal funtzionario estatutario izaera duten kidego eta eskaletan, autonomia-erkidegoek pertsonal hori erakunde sanitario publikoetakoak ez diren organo administratiboetara adskribatuko dituzte, horretarako ezar litezkeen mugikortasun-prozesuetako oinarrien arabera.»

Ekainaren 30eko 209/1990 Dekretuak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egiten duten mediku, praktikante eta emagin kidegoetako tokiko sanitaterako funtzionario teknikoak lehen mailako arretako taldeetan integratzea arautzen du; eta bigarren artikuluan dio zuzendari nagusiari dagokiola integratzeko eskaintza egitea.

Hori dela-eta, aipatutako araudian ezarritakoan oinarrituta, eta erakunde sindikalei entzun ostean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-erakundeetan lan egiten duen pertsonal funtzionario sanitarioaren borondatezko integrazio-prozesuaren deialdia egiten da.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helburua eta aplikazio-eremua.

a) Ebazpen honen bidez, garatu nahi da pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren 55/2003 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarria (testu berrian, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurrien apirilaren 24ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren arabera), eta erakunde sanitario publikoetako pertsonal funtzionarioa osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren erregimenean integratzea arautzen da.

b) Prozedura honen barruan sartzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko mediku orokor, praktikante eta emagin gisa lan egiten duten tokiko osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionario

mediku, praktikante eta emagin titularrak, bai eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde sanitario publikoetako gainerako pertsonal funtzionario sanitarioa ere; kasu bietan, bai jardunean daudenak bai indarreko legerian ezarritako arazoietakoren bat dela-eta lanpostua gordeta dutenak.

Bitarteko pertsonalak ere integrazioa eskatu ahal izango du, bai eta eszedentzia-egoeran dagoen pertsonalak ere, egoera hori arautzen duen legeriak zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko aurreikusitako epea igaro ez bada, eta baldin eta eszedentzia aitortu aurretik lan egiten ari bazen gaur egun Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren menpean dauden zerbitzu-erakundeetan.

c) Aplikazio-eremutik kanpo dago Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan zuzendaritza-postuetan edo zerbitzu-eginkizunetan ari den beste Administrazio Publikoetako pertsonal funtzionarioa.

Bigarrena.– Integrazzeko betebeharrak.

Integrazioa borondatez eskatzeko, ezinbestekoak dira baldintza hauek:

a) Karrerako funtzionarioa izatea, integrazio-xede den sailkapen-talde edo titulazio-maila bereko kategorian edo kidegoan, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikita egotea.

b) Integrazio-xede den kategoria eta izangaiaren kidegoa edo kategoria baliokideak izatea. Integratzen den pertsonalak eskatutako kategoria estatutarioei dagozkien funtzioak garatu beharko ditu.

c) Kasu bakoitzari dagokion legeriak eta kasuan kasuko jarduera profesionala arautzen duen berariazko legeriak eskatutako titulazioa izatea, Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako legezko eta arauzko baimena edo gaikuntza izan ezean.

Hala ere, karrerako funtzionario bati kidego, eskala edo kategoria jakin batera iristeko eskatu ez eta gaur egun indarreko araudi estatutarioan titulazio akademiko jakin bat eskatzen bada, eta funtzionario horrek legezko baimenik edo gaikuntzarik ez badu, berak duen titulazioaren araberrako talde-kategorian integratu ahal izango da, hots, horri dagokion talde-kategorian edo beheragokian.

d) Pertsonal estatutarioa izateko gainerako baldintzak betetzea.

Hirugarrena.– Integrazioaren ondorioak.

a) Integratzeak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan pertsonal estatutario finko izaera hartzea ekarriko du, bai erregimen juridikoan bai ekonomikoan, eta urteko ordainsarien zenbatekoa ez da inoiz izango integratu aurretik jasotzen zuena baino txikiagoa.

Estatutario finko izaera hartzen duen pertsonalak integratu den lanpostu funtzionalari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu, eta funtsezko lan-baldintzak errespetatuko zaizkio, bai eta integratu arte aitortuta zuen antzintasuna ere, ondorio guztietarako. Integratu ostean aitortzen diren hirurtekoak, Pertsonal Estatutarioaren Estatutu Markoaren 55/2003 Legearen 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira. Hala ere, hirurteko edo antzintasun kontzeptuan sailkapen-talde bakoitzerako aurreikusitakoak baino kopuru txikiagoak jasotzen dituztenei diru-kopuru horiek integratzen diren sailkapen-taldearen arabera erregularizatuko zaizkie.

b) Integrazioaren ondorioz, integrazio-egunera arte egiaztatutako ordainsariak baino gutxiago jasotzea egokituz gero, alde horri dagokion osagarri pertsonala aitortuko da, ez-xurgagarria eta errebalorizagarria. Aldi baterako osagarri pertsonala kalkulatzeko,

ez dira kontuan hartuko kontzeptu hauengatik jasotako diru-kopuruak: etengabeko arreta, txandakako lana, gaueko lana, jaiak, ospitalizazioa edo horiekin pareka daitezkeenak; edo, lanbide-garapenari lotuta aitortutakoak.

c) Integratzen den pertsonala, legearen aginduz, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuko da, eta legeak ez dio aukera-eskubiderik ematen gizarte-babesaren erregimenari dago-kionez; baina, mantendu egingo ditu Estatuko Klase Pasiboen Erregimenean integrazio-egunera arte hartutako eskubideak.

Laugarrena.– Prozedura.

Eskabideak non eta nola aurkeztu:

Integratu nahi duten karrerako funtzionarioek internet bidez egin beharko dute eskabidea, Osakidetzaren webguneko www.osakidetza.euskadi.net helbidean eskaintzen den eredia betez.

Hori betetzeko, curriculum vitae aplikaziorako eman zitzaien pasahitz bera erabiliko dute. Hala ere, horrelako pasahitzik ez dutenek aldeztatik beren zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzan eskatu beharko dute.

Eskabidean, izen-abizenak, nortasun-agiria eta helbidea idatzi beharko dira. Helbide elektronikoa ematen dutenek helbide hori erabiltzeko baimena ematen diote Osakidetzari prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetarako.

Epea.

Izangaiek hilabeteko epea izango dute, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Izena emateko epea azken egun balioduneko 14:00etan amaituko da.

Eskabideetan adierazten den helbidea izango da jakinarazpenetarako balioko duen bakarra. Izangaiek helbidea ematerakoan hutsen bat egin badu, bera izango da erantzulea; halaber, egoitza aldatzen badu, berak izango du aldatetaren berri Osakidetza-Euskal Osasun-zerbitzuari emateko erantzukizuna.

Prozeduraren garapena.

a) Izapideak. Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak prozedura bideratuko du. Horretarako, integrazio-eskabideak aztertuko ditu, eskatzaileek bete beharrekoak betetzen diren egiaztatzeko. Horri begira, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkie bai zerbitzu-erakundeei bai eskatzaileei.

b) Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen bidez, behin-behineko integrazio-zerrenda onartu eta jendaurrean jarriko da Osakidetzaren webgunean; bertan, aukera-eskubidea baliatu eta integratzeko baldintzak betetzen dituen pertsonalaren izen-zerrenda agertuko da.

c) Interesdunek hamar eguneko epea izango dute, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako izen-zerrendari alegazioak jarri eta egokitze jotzen duten dokumentazioa aurkezteko.

d) Giza Baliabideetako Zuzendaritzak aurreko hori aztertuta, integrazioko behin betiko proposamena osatu eta Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bitartez onartuko du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Administrazio-bidea agortzen duen ebazpen honen aurka, interesdunek aukera dute Zuzendaritza Nagusiaren aurrean berraztertze errekurtsoa jartzeko edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkaratzeko.

e) Integrazioari buruzko ebazpenak honakoak jaso beharko ditu: interesdunaren talde profesionala eta zein kategoriatan integratuko duten, atxikita geratuko den zerbitzu-erakundean zein lanpostu funtzional esleitu zaion eta zein egunetatik aurrera hasiko den indarrean integrazioa.

f) Pertsonal estatutario izaera egoera aktiboan egonik hartzen dutenek zuzenean izango dute jabetzan pertsonal funtzionario gisa jardunean ari ziren lanpostua.

Bosgarrena.– Integratu gabeko pertsonala.

Estatutu Markoaren hamaseigarren xedapen gehigarrian (apirilaren 24ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak emandako testu berriaren arabera) ezarritakoaren arabera, eta kontuan hartuta integrazioa borondatezkoa dela, eta Estatuko Administrazioa – Euskal Autonomia Erkidegoa bitariko Batzordearen Lankidetzaren Hitzarmenean xedatutakoari jarraiturik (Erregimen Juridikoko Sailburordearen 2013ko urtarrilaren 28ko Ebazpenean jasotakoa), deialdiaren aplikazio-eremuko den eta integratu nahi ez duen erakunde sanitarioetako pertsonal funtzionarioa (beraz, jardunean eta oraingo egoeran geratuta, funtzionario gisa dagokion kidegoan eta eskalan), erakunde sanitario publikoetakoak ez diren organo administratiboetara transferituko da, Euskal Autonomia Erkidegoan horretarako egin litezkeen mugikortasun-prozesuetako oinarrien arabera. Oinarri horietan ezar liteke atxikipena lanpostu hutsak sortzen direnean egingo dela.

Ebazpen honen laugarren atalean aurreikusitako moduan integratzen ez den pertsonalak parte hartu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak horretarako deitzen duen lehenengo mugikortasun-prozesuan, 2014ko urtarrilaren 1etik izaera orokorreko enplegu publikoaren laugarren eskaintza egin ostean.

a) Integratzen ez den pertsonalak irizpide hauen arabera ordainsariak jasoko ditu:

– Integratu nahi ez duen EAPko pertsonal funtzionarioak bere kategoriarik dagozkion ordainsariak jasoko ditu, bai eta kupo eta zona gisa hitzartutakoak ere. Horri begira, taula berria egingo da, bertan pertsonal horren ordainsariak islatzeko. Langile horiek ordainsarrietan murrizketarik izanez gero, azken hamabi hilabeteetan jasotako batez besteko kopurua kontuan hartuta, baina aintzat hartu gabe norberarena ez den beste lanposturen bat betetzeagatik jaso daitezkeen zenbatekoak, eskubidea izango dute kopuruan dagoen alde horri dagokion osagarri pertsonal ez-xurgagarria eta birbalorizagarria jasotzeko. Osagarri hori eguneratu egingo da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko arlo publiko osoko langileen ordainketa orokorreari aplikatu beharreko portzentaje bera gehituz.

– Pertsonal horrek aitortuta dituen hirurtekoei dagozkien zenbatekoek lan-baldintzak arautzeko Akordioan ezarritako balioa gaindituz gero, aurreko atalean adierazitako osagarri pertsonalari Ebazpen hau indarrean hasi aurreko balioaren eta aipatutako Akordioan ezarritakoaren arteko aldeari dagozkion zenbatekoak gehituko zaizkio. Onartutako hirurteko guztiak antzintasun osagarrian ordainduko dira, Akordioan ezarritako zenbatekoaren arabera.

Bai 2013an osatu eta 2014ko urtarrilean ordaintzen hasiko diren hirurtekoak, bai ebazpen hau indarrean hasteko unean eratzen ari diren eta integrazioa egiten den egunaren ostean osatu eta aitortzen direnak, Kupo eta Zonako pertsonalaren oraingo ordainsari-sistemaren arabera ordainduko dira. Azken kasuan kalkulua egiteko, interesdunak 2013an jasotako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Hirurteko horiei aurreko atalean ezarritako trataera bera emango zaie.

Aurretik LMTn integratutako EAPko pertsonal funtzionarioak eta gainerako funtzionario sanitarioek orain arte jasotako ordainsariak jasoko dituzte.

Kasu guztietan errespetatuko da pertsonal horrek Ebazpen hau indarrean hasi aurretik Klase Pasiboai eta Mufaceri edota Gizarte Segurantzari kotizatzeke zuen sistema.

b) Nolanahi ere, 2013ko abenduaren 31tik aurrera, integratu gabeko pertsonal funtzionarioak borondatez baliatu ahal izango du pertsonal estatutario finko gisa integratzeko aukera, eta horrek zerbitzuak era normalizatuan ematea onartzea ekarriko du, lan-baldintzak arautzeko Akordioan ezarritako jardunaldi- eta ordainsari-baldintzen arabera. Hala ere, aplikagarria izango zaie Ebazpen honek osagarri pertsonalari dagokionez hirugarrena-b atalean ebatzitakoa.

Bitarteko izaerako lan-harremana daukaten langileek, integratzen ez badira, betetzen ari diren lanpostuan jarraituko dute lanean, behin-behineko erregimen berean, arauzko betetzea eman arte, betiere ezarrita dauden legezko betekizunak betetzen badira. Lanpostu horretan jarraitzen duten bitartean, 2013ko abenduaren 31n indarrean dagoen izendapena kontuan hartuta, Ebazpen honetan xedatutako arauak aplikatuko zaizkie.

Seigarrena.– Argitaratzea eta interpretatzea.

Ebazpen hau EHAAn argitaratuko da. Prozedura hau garatzeko emango diren Ebazpenak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratuko dira.

Zazpigarrena.– Errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 26a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.